



# Blackboard Collaborate eGelan erabiltzeko gida azkarra

Zure eGelan sartu eta edizioa aktibatu.




Tutoretza birtualak egiteko erabili behar baduzu:


T1: Orokorra atalean sar zaitez. eta Gehitu jarduera edo baliabidea:



T2: Hautatu bi gezi more dituen ikonoa: Collaborate



**T3:** Gehitu baliabidea eta saioaren izena ipini. Iraupena, ikastaroaren amaiera artekoa izan daiteke:




**T4:** Gorde aldaketak.

**T5:** Jarduera agertuko zaizue dagokion tokian. Klik egin ikonoan





**T6:** eta Sartu saiora




Tresna honi buruzko informazioa (nabigatzaileak, rolak, audio eta video tresnen konfigurazioa, eta abar) esteka honetan dago: <https://www.ehu.es/eu/web/ecampus/bbc>

**T7:** Sartzean, ordenagailuaren mikrofono eta kamera erabiltzeko baimena eskatuko du: eman baimena.





**T8:** Audio proba egiteko soinua egin eta ikusi ea soinuaen barra mugitzen den (kolore morez margotuko da). Kameraren proba egitean, zuen irudia agertuko da.

Orduan tutorial bat egiteko aukera emango dizu. Une horretan egin dezakezu edo beste une baterako utzi.




**T9:** Hurrengo urratsa, soinua eta bideoa konpartitzea izango da. Horretarako pantailaren behe aldeko ikonoak sakatu behar dira:




Dena prest saioa hasteko.


Tresnak hainbat baliabide ditu: partekatu daitezkeen gauzen artean, harbela zuri bat, ordenagailuaren mahaigaina edo artxiiboak.




Taldeak osa daitezke elkarlanerako, txat bate gin daitezke, edo norberaren saioaren ezarpenak kudea daitezke. Amaitzean, saioa itxi:




Irakaskari edo atal jakin batetarako **saio bat grabatu** nahi baduzu, sar zaitez dagokion gai edo atalean.





Aurretik azaldu bezala, sor ezazu bertan Collaborate jarduera (**T1-T9** urratsak). Aldaketa bakarra, **T5** urratsean: saioaren iraupena laburragoa izan daitezke: 30 minutu eta 2,5 ordu bitartekoa. Ez da gomendagarria izaten 50 minutuko grabaketak egitea. Saio bat hiru zatitan banatzea aholkatzen da. Saioaren iraupenak, kasu honetan, grabaketak egiteko denbora tarte mugatuko digu, ez grabaketa bakoitzaren iraupena.




Kasu honetan, artxiboak partekatuz, aurrez aurreko saiorako erabiliko genukeen artxibo bera erabiliz, ohiko eskoletan ematen ditugun azalpenekin aberastu dezakegu artxibo hori. Horretarako, artxiboa partekatu behar dugu.



pdf edo ppt formatuak onartzen ditu. Zabalduko zaigun koadrora arrastaka eraman ditzakegu artxiboak edo bertan klik eginez gure ordenagailutik hautatu:




Denbora bat behar du artxiboa erabilgarri izateko. Prest dagoenean pantailaren eskuinaldean agertuko da. “Compartir ahora” sakatzean pantailaren erdialdean agertuko da:



Hainbat tresna agertzen dira goi-ekerraldean: markadorea, arkatza, testua idazteko aukera...

Saioa grabatzeko, goi-ekerraldeko menua zabaldu eta “Iniciar grabación” sakatu.



Konpartitzen ari garen artxiboa ken dezakegu, beste bat konpartitu, edo arbela txuria atera zerbait idatzi edo irudikatzeko, adibidez.

Amaitzeko toki berean dago aukera: “detener grabación”. Grabaketaren artxiboa sortu dugun atalean agertuko da, denbora apur bat pasa ondoren. Ikasleek bertan ikus dezakete edo deskargatu.

